



www.begiko.com

© Testua: 2020, Josu Baranda «Txagu Magu»

© Itzulpena: 2020, Amets Santxez

© Argitalpen hau:

2020, Santillana Infantil y Juvenil, S. L. eta Zubia Editoriala, S. L.

Legizamon poligonoa

Gipuzkoa kalea, 31, 1. esk.

48450 Etxebarri

Tel.: 94 426 90 72

ISBN: 978-84-16839-13-1

Lege-gordailua: M-38564-2019

Printed in Spain - Espainian inprimatua

Lehen argitalpena: 2020ko iraila

Sailaren zuzendaritza:

Joseba Santxo eta Maite Malagón

Edizioa:

Ainhua Basterretxea, Joseba Santxo eta Yolanda Caja

Errealizazioa:

Miren Pellejero eta Josu Goikoetxea

Zuzenketa:

Iraitz Urkulo

Arte-zuzendaritza:

José Crespo eta Rosa Marín

Proiektu grafikoa:

Marisol del Burgo, Rubén Chumillas, Julia Ortega,

Álvaro Recuenco eta Laura Ruiz



Liburu hau egiteko erabili diren
lehengaiak birziklagarriak dira,
eta jasangarritasunaren, ekonomia zirkularraren
eta energia-kudeaketaren alorreko Europako
arauak betetzen dituzte.

Debekaturik dago, legeak ezarritako salbuespenak salbu, lan hau inola
erreproduzitzea, banatzea, jendaurrean jakinaraztea, zein eraldatzea,
haren jabetza intelektuala dutenen baimenik gabe. Lan honen zatiren bat
fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo zuzenean CEDROra
(Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Xamaren herri magikoa

Josu Baranda «Txagu Magu»

Irudiak: Amaia Arrazola

begiko

*Nire gurasoei, beraiek gabe hau guztia ez
zelako posible izango.*

Nire ilobei, benetako protagonistak direlako.

*Nire familiari eta lagunei, ikusi ez arren,
badakidalako beti ditudala hor, izarren antzera.*

*Iñakiri, ni animatzeagatik eta abentura berri
honetan gidari lana egiteagatik.*

Pablori, erronka hau berari esker sortu zelako.

*Jagoba, Nagore, Johana, Ituiño, Naroa eta
Altrius; zuei guztioi, istorio honi forma ematen
laguntzeagatik.*

*Estitxuri, nire eguneroko bizitza magiko
bihurtzeagatik.*

Tiedra deritzon nire herri magikoko jendeari.

Herria

Iritsi gara!!!

7

Niretzat, herrira iristen garen momentuan hasten da uda. Urtero bezala, hantxe dira nire aitatxi-amatxiak, biak kaskazuri (tira, dagoeneko aitatxiri oso ile gutxi gertzen zaio), baina irribarre ederra ahoan. Hori bai, lasaitasun-egunak amaitu egin zaizkie. Amatxik, dena den, beti esaten du gu iristen garenean hasten direla udako egunik atseginenak. Otsoko ere hantxe dugu. Otsoko euskal artzain-txakurra da, eta ondoan izan dut herrian bizi izan ditudan abentura askotan. Otsokogandik gehien gustatzen



zaidana da bustita dagoenean otsoa ematen duela. Ura oso gogoko ez duen arren, ahal dudan bakoitzean garajea daukagun ureztahodiarekin goitik behera bustitzen dut: batetik, freskatzeko (herrian bero handia egiten du), eta bestetik, otso bihurtuta ikusteko. Baina ez pentsa, bustita dagoenean otso-itxura hartu arren, oso lasaia eta jolastia da, eta ez lioke sekula inori minik emango.

9

Bide batez, neure burua aurkeztuko dut: Xama naiz ni. Jaio nintzenetik deitzen didate horrela, eta asko gustatzen zait, ez dago eta herrian izen hori duen beste inor. Zortzi urte ditut. Nire lagun batzuk baino apur bat altuagoa naiz, eta beste batzuk baino baxuagoa. Ilea gaztainkara dut, begiak bezalaxe, eta azala beltzarana, baina uda amaitzen denerako are beltzaranago jarriko zait, ooooooso gustuko dut-eta eguzkitan egotea.

10 Aitatxi-amatxiei hamaika muxu eta be-
sarkada eman eta gero, etxera joan gara ma-
letak uztera. Maletak arropaz bete-beteta
daude, ama, aita eta hirurok hilabete osoa
pasatuko baitugu herrian. Eta ezetz asma-
tu nor izango dugun lagun. Lau hanka ditu,
mihi luzea eta bihotz handia... Otsoko! Hi-
labete honetan ez da gugandik urrunduko.
Izugarri maite dut!

Ettxera heltzean, ohartxo bat ikusi dugu
zoruan. Hemen ez daukagu postontzirik.
Beraz, postaria datorrenean etxean inor ez
badago, gutuna ate azpitik sartzen du beti.

Ohartxoan nire izena dago idatzita eta
hauxe dio:

**«Xama, laster zerbait garrantzitsua
gertatuko zaizu. J.A.».**

A zer misterioa! Nork utzi ote dit ohar-txoa? Zer esan nahi ote du? Eta nor ote da J.A.?

Gurasoak ere harrituta gelditu dira. Batez ere, esan diedanean ez dakidala norena den oharra.

Papertxoa patrikan gorde dut eta logelara joan naiz lasterka. Hunkituta nago herri-
ra etorri garelako!

11

Maleta logelan dago jada. Hortaz, lagunak ikusteko ordua iritsi da. Ez da beharrezkoa lagunei telefonoz hots egitea. Herrian daukagun gauzarik onenetakoa da hori. Ondotxo dakit beti lagunak non diren. Izan ere, lagun-talde guztietan gertatzen den bezala, magia-edo jakin ohi dugu lagunak non dabilzan. Eta horrelaxe gertatu da: parkera iritsi naizenean, hantxe topatu ditut Ana, Aitor, Marta, Nagore, Martina,

Jon eta Paul. Lagun asko oraindik ez dira heldu, baina aipatu ditudanak beti izaten dira iristen lehenak, urtean zehar hemen-dik gertu bizi direlako.

12 Nire herriko gauza aberasgarrienetako da denok garela leku desberdinetakoak: Euskal Herrikoak, Bartzelonakoak, Madril-ekoak, Galiziakoak, Sevillakoak eta baita Ceutakoak ere. Horregatik, etxera itzultzen garenean eskolan berriz hasteko, hainbat azentu nahasten ditugu hitz egitean, eta oso dibertigarria izaten da.

Betiko legez, lagun guztiak agurtu ditut, eta haiek, ohi bezala, istorio magikoren bat kontatzeko eskatu didate. Izan ere, ez dizut esan magia ikaragarri gustatzen zaidala, eta nagusiek ez bezala, nik benetako magia egiten dudala, hau da, beti ongi ateratzen dena. Baina lasai, zeuk ere egingo duzu magia. Ikusiko duzu!

Eta nire magiaren berri izan dezazuen, pasadizo bat kontatuko dizuet, aurten nire osabatxi maiteari gertatutakoa, Donejakue bidea egiten ari zela (nik *Osabatxi* esaten diot beti osabari). Jakingo duzuenez, Donejakue bidea oinez, bizikletaz edo zaldiz egin daitekeen ibilbide luzea da. Zaldiz egitea ez da erraza, zaldia eduki behar baita. Zaldia barik, bizikleta edukitzea ohikoagoa da; eta gainera, guztiok dakigu bizikletaz ibiltzen. Ibilbide hori egiten duten guztiei *erromes* esaten zaie, ibilbidea oinez, bizikletaz edo zaldiz eginda ere.

13

Orreagan hasten da Donejakue bidea, Nafarroako herri batean, eta Santiago de Compostelan amaitzen, Galizian, gutxi gorabehera 750 km egin ostean. Erromesek urte osoan zehar hartu ohi dute parte erroresaldi horretan, eta herrian gertatzen den moduan, bertan leku guztietatik etorritako

jendea bildu ohi da. Baina, herrian ez beza-
la, Donejakue bidean biltzen diren lagunek
ez dute elkar ezagutzen.

14 Batzuetan, baina, magiaren laguntzaz
errromesen artean adiskidetasuna sortzen
da betiko, eta hori nola gertatzen den azal-
duko dizuet.

Osabatxik kontatu zidan behin Done-
jakue bidea egiten ari ziren hainbat lagun
bildu zirela ostatu batean afaltzeko, lau
kontinente desberdinetakoak: europarrak,
asiarrak, afrikarrak eta amerikarrak.

Orain denok adi, magia egingo dugu eta:
*16 karta atera ditut poltsikotik, aldez aurretik 4
multzotan banatuak. Karta horiek aipatutako
lau kontinenteetako herritarren irudiak dituzte
(eskuragarri dituzu liburuaaren amaieran, 115.,
116., 117. eta 118. orrialdeetan. Moztu itzazu
eta prest eduki hurrengo pausoak emateko).*

Kontatuaren arabera, osabatxi aterpetxe batera heldu zen erromes-menua afaltzeko asmoz (erromes-menua Donejakue bidea egiten dutenek jan ohi duten janari tipikoa da). Aterpetxe hartan, 4 mahai zeuden, bakoitza 4 aulkirekin; eta gelaren erdian bi dantzagune (119. orrialdean dituzu mahaiak eta dantzaguneak).

15

Osabatxi heldu bezain laster, 4 europar sartu ziren ostatura, eta mahai baten inguruan eseri.

Orain zure txanda:

-Jar itzazu europarren lau kartak ahuspez 119. orrialdeko 1. mahaiaren irudiaren gainean.

Handik gutxira, asiarrak iritsi, eta beste mahai batean eseri ziren.

-Jar itzazu asiarren lau kartak ahuspez 2. mahaiaren irudiaren gainean.

Azken erromes asiarra eseri eta berehala, afrikarrak iritsi ziren.

-Orain arte bezalaxe, jar itzazu afrikarren 4 kartak ahuspez 3. mahaian.

Azkenik, amerikarrek hartu zuten laugarren mahaia.

16 *-Jar itzazu geratzen zaizkizun lau kartak ahuspez 4. mahaian. Hortaz, 4 multzo ditugu, bakoitza kontinente bereko 4 biztanlez osatua (europarrak, asiarrak, afrikarrak eta amerikarrak).*

Halako batean, musika jarri zuten, eta 16 erromesak dantzan hasi ziren, denak batera.

-Hartu 1. mahaiko kartak eta jarri ahuspez 1. dantzagunearen gainean. Ondoren, hartu 2. mahaiko kartak eta jarri aurrekoen gainean, ahuspez horiek ere. Horren ostean, gauza bera egin 3. mahaiko kartekin, eta bukatzeko, berdin jokatu 4. mahaiko kartekin.

Musika entzuten zen bitartean, erromesak dantzan ari ziren etengabe.

*-Osatutako multzo horretatik, hartu gai-
netik azpimultzo txiki bat kartak nahasi gabe
(berdin da zenbat kartatako azpimultzoa den)
eta jarri 2. dantzagunean ahuspez.*

*-Orain, hartu lehen multzoan gelditu diren
kartak eta jarri, haien artean nahasi gabe, bi-
garren multzoaren gainean. Horrela, errome-
sen kartak nahasirik geratu dira.*

17

*Erromesek dantzan jarraitzen zuten,
musika etengabe entzuten baitzen.*

*-Egin berri duguna kontrako noranzkoan
egin behar dugu orain. Hartu 2. dantzagune-
ko karta batzuk eta jarri ahuspez 1. dantza-
gunean. Horren ondoren, jarri gainean falta
diren karta guztiak. Horrela, kartak berriro
nahasi ditugu.*

*Musika isildu zenean, erromesak beren
eserlekuetara itzuli ziren.*

*-Orain, goitik hasita, hartu goian dagoen
karta eta jarri ahuspez 1. mahaian, bigarren*

karta 2. mahaian, hirugarrena 3. mahaian eta laugarrena 4. mahaian.

-Egin hori bera berriro: jarri goian dagoen karta ahuspez 1. mahaian, bigarrena 2. mahaian, eta berdin hirugarren eta laugarren kartekin.

18 *-Egin hori bera hurrengo lau kartekin: lehena 1. mahaian, bigarrena 2. mahaian, hirugarrena 3. mahaian eta laugarrena 4. mahaian.*

-Azkenik, egin gauza bera esku artean dituzun lau kartekin: lehena 1. mahaian, bigarrena 2. mahaian, hirugarrena 3. mahaian eta laugarrena 4. mahaian.

Magia orduantxe gertatu zen: azken erro-mesa eseri orduko, konturatu ziren ez zeudela hasieran bezala eserita (alegia, europarrak batera, asiarrak batera, amerikarrak batera eta afrikarrak batera); lau kontinenteetako ordezkari bana zegoen mahai guztietan!

-Orain, eman buelta 1. mahaiko karta guztiei, eta ikusiko duzu europar, asiar, afrikar

*eta amerikar bana dagoela, eta gauza bera ger-
tatuko da 2. mahaikoekin, bai eta 3. eta 4. ma-
haikoekin ere.*

Magia egin duzu!!!

Benetako magia!!!

19

Erromesak hizketan ari ziren, nor bere mahaiko erromesekin, haien kulturaren berri izateko. Eta halako batean, musika jarri zuten berriro, eta erromes guztiek dantza egiteari ekin zioten osterara ere.

-Jarri 1. mahaiko kartak ahuspez, nahi duzun ordenan, 1. dantzagunean.

-Jarri gainean 2. mahaiko kartak (baina lehenengo mahaikoak jarri dituzun ordena berean, hau da, han europarra lehenengo jarri baduzu, hemen ere bai); ondoren, 3. mahaikoak ordena berean, eta azkenik, 4. mahaikoak ordena berean, denak ere ahuspez.

-Orain, lehen egin dugun bezala, kartak nahasiko ditugu, era honetara:

-Hartu karta batzuk eta, ondoren, jarri ahuspez 2. dantzagunearen gainean.

20 *-Hartu lehenengo multzoan gelditzen diren kartak eta jarri bigarren multzoaren gainean; horrela, 16 kartak berriro ere nahasi ditugu.*

Musika oso gogoko zuten denek, eta elkar ezagutu berri zutenek, dantzari jarraitu zuten.

-Hartu karta batzuk eta, ondoren, jarri ahuspez 1. dantzagunean, eta egin gauza bera gelditzen diren kartekin.

Apurka-apurka, musika isiltzen hasi zen, eta orduan erronesak esertzen hasi ziren, noren alboan suertatuko ziren jakin barik.

-Lehen egin dugun bezala, goitik hasita, hartu goian dagoen karta eta jarri ahuspez 1. mahaian, bigarren karta 2. mahaian, hirugarrena 3. mahaian eta laugarrena 4. mahaian.

-Egin hori bera berriro: jarri goian dagoen karta 1. mahaian, bigarrena 2. mahaian, hirugarrena 3. mahaian eta laugarrena 4. mahaian.

-Egin gauza bera hurrengo lau kartekin: jarri lehena 1. mahaian, bigarrena 2. mahaian, hirugarrena 3. mahaian eta laugarrena 4. mahaian.

-Azkenik, errepikatu prozedura esku artean dituzun lau kartekin: jarri lehena 1. mahaian, bigarrena 2. mahaian, hirugarrena 3. mahaian eta laugarrena 4. mahaian.

21

Hura harridura-aurpegia erromesena, gertatu zena ikusi zutenean: hasieran eseri ziren bezalaxe zeuden berriro; hau da, europarrak batera, asiarrak batera, amerikarrak batera eta afrikarrak batera. Orain, ordea, lehen baino askoz aberatsagoak ziren, oso leku desberdinetako hainbat pertsona interesgarri ezagutu baitzituzten; bai eta beste kultura batzuei buruz ikasi ere!